

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/42/EE ZUZENTARAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko maiatzaren 17koa, makinei buruzkoa eta 95/16/EE Zuzentaraua
aldatzen duena (Bategitea).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/42/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de mayo de 2006, relativa a las máquinas y por la que se modifica la Directiva 95/16/CE (refundición)*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 64 de 4/3/2006)

2006/42/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA,

2006ko maiatzaren 17koa,

makinei buruzkoa eta 95/16/EE Zuzentaraua aldatzen duena (bategitea)

(Testu egokia EEEri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuak, eta, bereziki,
haren 95. artikulua aztertu dute,

Batzordearen proposamena⁽¹⁾ aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen
irizpena⁽²⁾ aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari⁽³⁾
jarraiki,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/37/EE Zuzentaraua, 1998ko ekainaren 22koa, estatu kideen makinei buruzko legeriak bateratzeari buruzkoa⁽⁴⁾, 89/392/EEE Zuzentaruaren kodetzea da⁽⁵⁾. 98/37/EE Zuzentaruaren sartu diren aldaketa garrantzitsuak direla-eta, komeni da, argitasunaren alde, aipatu Zuzentaruak bategitea.
- (2) Makinen sektoreak leku garrantzitsua du mekanikaren sektorearen baitan, eta Erkidegoko ekonomiaren alor industrial nagusietakoa da. Makinen erabileragatik zuzenean eragindako istripu-kopuru handiaren kostu soziala murriz daiteke makinen diseinu- eta fabrikazio-faseetan segurtasuna txertatuz eta instalazio zein mantentze-lan egokiak eginez.
- (3) Estatu kideei dagokie beren lurraldean, eta zehazki makinen erabilerak eragindako arriskuei begira, pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzea, bereziki langile eta kontsumitzaileena eta, behar izanez gero, etxeko abere eta ondasunena.

(4) Erabiltzaileen segurtasun juridikoa bermatze aldera, beharrezkoa da Zuzentaru honen aplikazio-esparrua eta aplikazio horri lotutako inguruabarrak ahalik eta modu zehatzenean definitzea.

(5) Pertsonak, edo pertsonak eta materialak, jasotzeko eraikuntza-obretako igogailuei dagokienez, estatu kideen derrigorrezko xedapenek, sarritan derrigorrezko zehazpen teknikoek edo borondatezko arauak osatuak, ez dute zertan osasun- eta segurtasun-maila ezberdinak ezarri, baina hala ere, ezberdinak izaki, merkataritza-trukerako oztopo dira Erkidegoaren baitan. Gainera, makina hauen onespene-egiaztapeneko eta ziurtapeneko sistema nazionalen artean alde nabarmenak daude. Beraz, komeni da pertsonak, edo pertsonak eta materialak, jasotzeko eraikuntza-obretako igogailuak Zuzentaru honen aplikazio-esparrutik salbuetsita ez gotea.

(6) Komeni da Zuzentaru honen aplikazio-esparrutik salbuestea Kontseiluaren 91/477/EEE Zuzentaruaren eraginpeko armak, su-armak barne; aipatu Zuzentaruak, 1991ko ekainaren 18koa, armen erosteta eta edukitzaren kontrolari buruzkoa da⁽⁶⁾. Su-armen salbuespen hori ez zaie aplikatuko gai leherkorak jartzeko makina eramangarriei nahiz soilik helburu industrial edo teknikoetarako diseinatutako bestelako inpaktu-makina eramangarriei. Beharrezkoa da xedapen iragankorrak ezartzea, Zuzentaru hau onartzeko orduan estatu kideek beren lurraldean indarreko araudi nazionalen arabera fabrikatutako makinak merkaturatu eta zerbitzuan jartzea baimendu ahal izan dezaten; eta xedapen horien artean, 1969ko uztailearen 1eko Hitzarmena, su-arma eramangarrietan proba-markak elkarri onartzeari buruzkoa, garatzen dutenak. Bestalde, aipatu xedapen iragankor horiek teknikaren egoeran oinarritutako segurtasun-maila egokia bermatzeko arauak ezartzea ahalbidetuko die Europako normalizazio-erakundeak.

(7) Zuzentaru hau ez zaie pertsonak jasotzeko makinei aplikatuko, makinak berriaz horretarako diseinatu ez direnean. Nolanahi ere, horrek ez du eraginik izango estatu kideek, aipatu makinei buruz eta Tratatuaren arabera, estatu-mailako neurriak hartzeko duten eskubidean, Kontseiluaren 89/655/EEE

¹ EO C 154, 2001.3.29koa, 164. or.

² EO C 311, 2001.11.7koa, 1. or.

³ Europako Parlamentuaren Irizpena, 2002ko uztailearen 4koa (EO C 271 E, 2003.11.12koa, 491. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2005eko uztailearen 18koa (EO C 251 E, 2005.10.11koa, 1. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2005eko abenduaren 15koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea). Kontseiluaren Erabakia, 2006ko apirilaren 25ekoa.

⁴ EO L 207, 1998.7.23koa, 1. or. Zuzentaruak, 98/79/EE Zuzentaruak aldatua (EO L 331, 1998.12.7koa, 1. or.).

⁵ Kontseiluaren 89/392/EEE Zuzentaruak, 1989ko ekainaren 14koa, Estatu kideen makinei buruzko legeriak bateratzeari buruzkoa (EO L 183, 1989.6.29koa, 9. or.).

⁶ EO L 256, 1991.9.13koa, 51. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Zuzentarauari begira; aipatu Zuzentaraua, 1989ko azaroaren 30ekoa, langileek lanean laneko ekipoak erabiltzeko segurtasun eta osasunaren inguruko gutxieneko xedapenei buruzkoa da (89/391/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluko 1. paragrafoaren arabera berariazko bigarren Zuzentaraua) ⁽¹⁾.

- (8) Nekazaritza eta basogintzarako traktoreei dagokienez, Zuzentaru hauek ez dira aplikatu behar gaur egun Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/37/EE Zuzentaruaren, 2003ko maiatzaren 26koan, aurreikusten ez diren arriskuatarako; aipatu Zuzentaraua nekazaritza edo basogintzarako traktoreen, horien atoi eta atoiaren eramandako makineria trukagarriaren nahiz ibilgailu horien sistema, osagai eta unitate teknikoen homologazioari buruzkoa da ⁽²⁾. Izan ere, arrisku horiek 2003/37/EE Zuzentaruaren aurreikusita daude.
- (9) Ezinbestekoa da merkatua zaintzea, horrela zuzentaruak era egoki eta bateratuan aplikatuko direla bermatzen baita. Hortaz, komeni da merkatuaren zaintza bateratua gauzatu ahal izateko testuinguru juridiko bat ezartzea.
- (10) Estatu kideen erantzukizuna da Zuzentaru hau beren lurraldeetan modu eraginkorrean ezarria izateaz eta arauak aipagai dituen makinen segurtasuna, ahal den neurrian eta xedapenen arabera, hobetzeaz arduratzea. Estatu kideek hobetu beharra dute Batzordeak moldatutako zuzentaruak aintzat hartuz merkatuaren zaintza eraginkorra bermatzeko duten ahalmena, Zuzentaru hau egiaz modu egoki eta bateratuan aplikatua izan dadila lortze aldera.
- (11) Merkatuaren zainketa horretan, garbi bereizi behar dira, alde batetik, makina bati onespren-presuntzioa ematen dion arau bateratu baten aurka egitea, eta bestetik, makina baten babes-klausula.
- (12) Makina bat Zuzentaru honen arabera zerbitzuan jartzean, makinarako aurreikusi den edo aurreikusgarria izan daitekeen erabilera bakarrik emango zaio. Horrek ez du esan nahi berez makinari ez dagozkion erabilera-baldintzak ezar ez litezkeenik, betiere baldintza horiek ez badituzte, Zuzentaru honetan xedatutakoari jarraiki, makinan aldatetak eragiten.
- (13) Beharrezkoa da, halaber, Erkidegoaren esparruan berariazko neurriak hartzea ahalbidetuko duen mekanismoren bat aurreikustea, estatu kideei exijitu ahal izateko pertsonen osasun edo segurtasunerako arrisku berberak –dagozkion arau bateratueta akatsak egoteagatik edota

makinen ezaugarri teknikoengatik– dakartzaten makina-mota jakin batzuen merkaturatzea debekatu edo murriz dezatela, edo makina horiei baldintza bereziak ezarri ahal izateko. Aipatu neurrien premia behar bezala ebaluatuko dela bermatzearen, neurri horiek Batzordeak hartu beharko ditu komite baten laguntzaz, estatu kideekin eta bestelako alderdi interesdunekin hitz egin ondoren. Neurriak eragile ekonomikoei zuzenean aplikagarriak ez zaizkienez, estatu kideek beharrezko diren neurri guztiak hartu beharko dituzte aplikatuak izan daitezten.

- (14) Makinen segurtasuna bermatze aldera, osasun eta segurtasuneko oinarritzko betekizunak konplitu behar dira; betekizun horiek bereizmenez aplikatu behar dira, fabrikatzeko orduan teknikaren egoera eta betebeharrak tekniko eta ekonomikoak aintzat hartzeko.
- (15) Makina bat kontsumitzaile batek, alegia operadore ez-profesional batek, erabil dezakeenean, fabrikatzaileak hori kontuan izan beharko du hura diseinatu eta fabrikatzerakoan. Arreta bera eduki beharko da makina, normalean, kontsumitzaile bati zerbitzu bat eskaintzeko erabiliko denean.
- (16) Zuzentaru honen baldintzak kuasi-makinei erabat ez ezarrita ere, garrantzitsua da berariazko prozedura batez aipatu kuasi-makina horien zirkulazio librea bermatzea.
- (17) Azoka, erakusketa eta antzeko ekitaldietan posible izan beharko da Zuzentaru honen betekizunak konplitzen ez dituzten makinak erakustea. Nolanahi ere, interesdunei onspen ezaren berri emango zaie, eta makina horiek baldintza horietan erostea ezinezkoa dela jakinaraziko zaie.
- (18) Zuzentaru honek osasun eta segurtasuneko oinarritzko betekizun orokorrak bakarrik definitzen ditu, eta, horrez gain, makina-mota jakin batzuetarako betekizun berariazkoagoak gehitzen ditu. Fabrikatzaileei makinek oinarritzko betekizun horiekin bat egiten dutela egiaztatuzeko proba erraztearen eta bat egite hori kontrolatu ahal izateko, komeniko litzateke Europar Erkidegoaren mailan makinen diseinu eta fabrikazioaren ondoriozko arriskuen aurkako prebentzioari buruz arau bateratuak izatea. Arauok Zuzenbide pribatuko erakundeek taxutu behar dituzte, eta testu ez-derrigorrezkoen izaera gorde beharko dute.
- (19) Zuzentaru honen eraginpeko makinak erabiltzeko dakartzen arrisku-motak direla-eta, komeni da osasun eta segurtasuneko oinarritzko betekizunen konplimendua ebaluatuzeko prozedurak ezartzea. Prozedurok makina horiek berez duten arriskugarritasunaren munta aintzat hartuta diseinatu behar dira. Beraz, makina-mota bakoitzerako prozedura egokia aurreikusi behar da, eta prozedura horrek nahitaez bete behar du Kontseiluaren 93/465/EEE Erabakia, 1993ko

¹ EO L 393, 1991.12.30ekoa, 13. or. Azkena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/45/EE Zuzentaruak aldatutako Zuzentaru (EO L 195, 2001.7.19koa, 46. or.)

² EO L 171, 2003.7.9koa, 1. or. Azkena Kontseiluaren 2005/67/EE Zuzentaruak aldatutako Zuzentaru (EO L 273, 2005.19.19koa, 17. or.).

- uztailaren 22koa, konplimendua ebaluatzeko prozeduren fase ezberdinetako moduluei eta "CE" (EE) onespren-marka ezarri eta paratzeko sistemaren inguruan bateratze teknikoko zuzentzailearen erabiliko diren⁽¹⁾ xedapenei buruzkoa; prozedurak, gainera, kontuan izango du makina bakoitzak behar duen egiaztapen-mota.
- (20) Komeni da fabrikatzaileen esku uztea beren makinak Zuzentarau honekin bat datozela egiaztatzeko erantzukizun osoa. Alabaina, arrisku handiagoa eragin dezaketen makina jakin batzuetarako egiaztapen-prozedura zorrotzagoa ezarri beharko litzateke.
- (21) Garrantzitsua da CE marka erabat onartu eta aitortua izan dadila makinak Zuzentarau honen betekizunak konplizten dituela bermatzen duen marka bakar bezala. Debekatu egin beharko da CE markaren esanahia, logotipoa edo biak nahasteko bide ematen duen markatze oro.
- (22) CE markak eta fabrikatzailearen izenak kalitate bera izango dutela bermatzearen, garrantzitsua da biak teknika berak baliatuz estanpatuak izatea. Osagai jakin batzuetan ager litezkeen CE markaren eta makinari dagokion CE markaren artean nahasketarik egon ez dadin, garrantzitsua da aipatu azken marka haren arduradunaren izenaren ondoan, alegia fabrikatzailearen edo haren ordezkari baimendunaren izenaren ondoan, estanpatzea.
- (23) Era berean, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak bermatu beharko du merkaturatu nahi den makinaren arriskuen ebaluazio bat burutuko dela. Horretarako, makinak osasun eta segurtasuneko zein oinarritzko betekizun konplitu behar dituen zehaztu beharko du, horien gainean neurriak hartzeko.
- (24) Ezinbestekoa da fabrikatzaileak, edo Erkidegoan finkatutako haren ordezkari baimendunak, eraikuntzako espediente tekniko bat egitea, CE onespren-adierazpena igorri aurretik. Ez da ezinbestekoa dokumentazioa aldi oro materialki existitzea, baina eskatzen denean eskuragarri egon beharko du. Ez da beharrezkoa dokumentazioan makinak fabrikatzeko erabilitako azpimultzoen plano xehekatuak jasotzea, salbu eta horien ezagutza osasun eta segurtasuneko oinarritzko betekizunak egiaztatzeko ezinbestekoa denean.
- (25) Zuzentarau honi jarraiki hartutako edozein erabakiren hartzaileek erabaki hori hartzera eraman zuten arrazoiak eta eskura dituzten baliabideak ezagutu beharko dituzte.
- (26) Komeni da estatu kideek Zuzentarau honetan xedatutakoa urratzeagatik aplikagarri diren zigorrak aurreikustea. Zigor horiek eraginkorrak, neurrikoak eta eragozleak izan beharko dira.
- (27) Pertsonak jasotzeko makinei Zuzentarau hau aplikatze aldera, Zuzentarau honek estaltzen dituen produktuak hobeto zehaztu behar dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/16/EE Zuzentzarauak, 1995eko ekainaren 29koa, estatu kideen igogailuei buruzko legeriak bateratzeari buruzkoak⁽²⁾, estaltzen dituenekiko. Beharrezkotzat jo zen azken Zuzentarau honen aplikazio-esparrua birdefinitzea. Horregatik, eta horrenbestez, 95/16/EE Zuzentzaraua aldatzea komeni da.
- (28) Zuzentarau honen helburua, alegia makinaren diseinu eta fabrikazioari dagokien osasun eta segurtasuneko oinarritzko betekizunak ezartzea merkaturatzen diren makinaren segurtasuna areagotzearen, estatu kide guztiek behar den neurrian lortu ezin dutenez eta, ondorioz, erkidego-mailan hobeto lor daitekeenez, Erkidegoak neurriak hartu ahal izango ditu, Tratatuaren 5. artikuluan xedatutako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan azaldutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Erabaki hau ez doa helburu horiek lortzeko beharrezkoa denaz haratago.
- (29) «Legeak hobeto egitea»⁽³⁾ erakundearteko Hitzarmenaren 34. paragrafoaren arabera, estatu kideak adoretu behar dira beren interesaren eta Erkidegoaren alde bakoitzak bere koadroak ezartzera, ahal den neurrian Zuzentarau honen eta transposizio-neurrien elkarrekotasuna agertuko dutelarik, eta horiek ezagutzera ematera.
- (30) Zuzentarau hau aplikatzeko beharrezko diren neurriak hartzeko orduan, errespetatu egingo da Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakia, 1999ko ekainaren 28koa, Erkidegoari esleitutako betearazpen-eskumenak egikaritzeko prozedurak ezartzen dituen⁽⁴⁾.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Aplikazio-esparrua

1. Zuzentarau hau honako produktu hauei ezarriko zaie:

- a) makinak;
- b) ekipo trukagarriak;
- c) segurtasun-osagaiak;
- d) jasotzeko osagarriak;

² EO L 213, 1995.9.7koa, 1. or. 1882/2003 (EE) Araudiak aldatutako Zuzentzaraua (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.).

³ EO C 321, 2003.12.31koa, 1. or.

⁴ EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or.

¹ EO L 220, 1993.8.30koa, 23. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- e) kateak, kableak eta uhalak;
 - f) transmisio mekanikoko gailu mugigarriak;
 - g) kuasi-makinak.
2. Zuzentarau honen aplikazio-esparrutik kanpo geratzen dira:
- a) Ordezkatzeko pieza bezala erabiltzeko segurtasun-osagaiak, baldin eta osagai berdin berdinak ordezkatzeko badira eta jatorrizko makinaren fabrikatzaileak hornitzen baditu;
 - b) barraka eta jolas-parkeetarako berariazko ekipoa;
 - c) Erabilera nuklearretarako berariaz diseinatu edo zerbitzuan jarritako makinak, akatsik izanez gero erradioaktibitate-isuri bat eragin dezaketenak.
 - d) armak, su-armak barne;
 - e) honako garraiobide hauek:
 - nekazaritza- eta basogintza-traktoreak 2003/37/EE Zuzentarauak estaltzen dituen arriskueterako, aipatu ibilgailuetan ezarritako makinak izan ezik,
 - Kontseiluaren 70/156/EEE Zuzentarauak, 1970eko otsailaren 6koak, ibilgailu motordunen eta haien atoiaren homologazioaren gaineko estatu kideen legeriak bateratzeari buruzkoak⁽¹⁾, estaltzen dituen ibilgailu motordunak eta haien atoiak, aipatu ibilgailuetan ezarritako makinak izan ezik,
 - Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/24/EE Zuzentarauak, 2002ko martxoaren 18koak, bi edo hiru gurpilekiko ibilgailu motordunen homologazioari buruzkoak⁽²⁾, estaltzen dituen ibilgailuak, aipatu ibilgailuetan ezarritako makinak izan ezik,
 - lehiaketarako bakarrik erabiltzen diren ibilgailu motordunak, eta
 - aire, ur eta trenbide-sareko garraiobideak, aipatu garraiobideetan ezarritako makinak izan ezik;
 - f) itsas nabigazioko ontziak eta itsas zabaleko unitate mugikorrek nahiz itsasontzi edota unitate horietan ezarritako makinak;
 - g) berariaz xede militar edo polizialez diseinatu eta fabrikatutako makinak;

- h) berariaz ikerketarako, aldi batez laborategian erabiliak izateko, diseinatu eta fabrikatutako makinak;
- i) meatze-putzuetarako igogailuak;
- j) Arte-emankizunetan aktoreak jaso edo garraiatzeko erabiltzen diren makinak;
- k) jarraian aipatzen diren esparruetan barne hartzen diren produktu elektriko eta elektronikoak, Kontseiluaren 73/23/EEE Zuzentarauak, 1973ko otsailaren 19koak, tentsio-muga jakin batzuekin erabiltzeko material elektrikoaren gaineko estatu kideen legeriak bateratzeari buruzkoak⁽³⁾, estaltzen dituen heinean:
 - etxean erabiltzekoak diren etxetresna elektrikoak,
 - ikus-entzunezko ekipoa,
 - informazioaren teknologiko ekipoa,
 - bulegoko makina arruntak,
 - behe-tentsioko konexio- eta aginte-gailuak,
 - motor elektrikoak;
- l) goi-tentsioko ekipo elektrikoak:
 - konexio- eta aginte-gailuak,
 - transformadoreak.

2. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honen ondorioetarako, «makina» terminoak 1. artikuluan, 1. paragrafoa a) eta f) bitarteko letretan agertzen diren produktuak izendatzen ditu.

Honako definizio hauek baliatuko dira:

- a) «makina»:
 - elkarlotutako eta aplikazio jakin baterako batutako zati edo osagaien multzoa —horietako bat gutxienez mugikorra— giza edo animalia indarraz bestelako eragintza-sistema batez hornitua edo sistema horrez hornitua izateko taxutua,
 - lehen marran aipatutakoa bezalako multzoa, energia- edo mugimendu-iturrietarako konexio-elementuak bakarrik falta zaizkiona,
 - lehen eta bigarren marretan aipatutakoak bezalako multzoa, instalatua izateko prest

¹ EO L 42, 1970.2.23koa, 1. or. Azkena Kontseiluaren 2006/28/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (EO L 65, 2006.3.7koa, 27. or.).

² EO L 124, 2002.5.9koa, 1. or. Azkena Kontseiluaren 2005/39/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (EO L 106, 2005.4.27koa, 17. or.).

³ EO L 77, 1973.3.26koa, 29. or. Kontseiluaren 93/68/EEE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (EO L 220, 1993.8.30koa, 1. or.).

- dagoena, eta aurrez garraiobide batean edo eraikin zein egitura batean instalaturik muntatuta bakarrik funtziona dezakeena,
- lehen, bigarren eta hirugarren marretan aipatutakoak bezalako makina-multzoa, edo g) letrak hizpide dituen kuasi-makinena, instalatua izateko prest dagoena, eta aurrez garraiobide batean edo eraikin zein egitura batean instalaturik muntatuta bakarrik funtziona dezakeena,
 - elkarlotutako eta kargak jasotzeko batutako zati edo osagaien multzoa —horietatik bat gutxienez mugikorra— energia-iturri bakarra zuzenean erabilitako giza indarra duena;
- b) «ekipo trukagarria»: makina edo traktore bat zerbitzuan jarri ondoren, operadoreak berak aipatu makina edo traktoreko akoplatzeko erabiltzen duen gailua, haren funtzioa aldatzeko edo beste funtzio bat gehitzeko, betiere ekipo hori erreminta bat ez bada;
- c) «segurtasun-osagaia»: osagaia:
- segurtasuneko funtzio bat burutzeko balio duena,
 - aparte merkaturatzen dena,
 - haren hutsegite edo funtzionamendu akastunak pertsonen segurtasuna arriskuan jartzen duena, eta
 - makinaren funtzionamendurako beharrezkoa ez dena edo, makinaren funtzionamendurako, osagai arruntez ordezkatua izan daitekeena.
- V. eranskinean segurtasun-osagaien zerrenda orientagarri bat ageri da, 8. artikularen 1. paragrafoko a) letrari jarraiki eguneratu ahal izango dena;
- d) «jasotzeko osagarria»: jasotze-makinaren zati ez den osagai edo ekipoa, kargari heltzea ahalbidetuko duena, makinaren eta kargaren artean edo kargaren beraren gainean paratua, edo kargaren zati izateko aurreikusi eta aparte merkaturatzen dena. jasotzeko osagarritzat hartuko dira, halaber, eslingak eta horien osagaiak;
- e) «kateak, kableak eta uhalak»: jasotzeko diseinatu eta fabrikatutako kate, kable eta uhalak, jasotze-makinaren edo jasotzeko osagarrien zati gisa;
- f) «transmisio mekanikoko gailu mugigarria»: makina automotor baten edo traktore baten eta haren bidez eragindako makina baten artean potentzia transmititzeko osagai mugigarria, aipatu makinak lehen euskarri finkora lotuz. Babesgarriaz merkaturatzen denean, produktu bakar bat dela ulertu behar da;
- g) «kuasi-makina»: ia makina bat osatzen duen multzoa, baina aplikazio jakin bat berez egin ezin dezakeena. Eragintza sistema bat kuasi-makina bat da. Kuasi-makinek beste makina, kuasi-makina edo ekipoetara gehitu edo mihiztatzea beste erabilpenik ez dute, Zuzentarau hau aplikatuko zaion makina bat osatuz;
- h) «merkaturatzea»: makina edo kuasi-makina bat Erkidegoan lehen aldiz eskuragarri jartzea, ordainketa bidez edo dohainik, hura banatu edo erabiltzeko;
- i) «fabrikatzailea»: pertsona fisiko edo juridikoa, Zuzentarau honek estalitako makina edo kuasi-makina bat diseinatu eta fabrikatzen duena eta makina edo kuasi-makina hori Zuzentarau honekin bat etortzearen erantzulea dena, hura merkaturatzeko, bere izenez edo bere markaz, edo berak erabiltze aldera. Adierazi den gisako fabrikatzailearik ezean, fabrikatzailetzat hartuko da Zuzentarau honek estalitako makina edo kuasi-makina bat merkaturatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridiko;
- j) «ordezkari baimenduna»: Erkidegoan finkatutako pertsona fisiko edo juridikoa, fabrikatzailearen idatzizko agindua jaso duena haren izenean Zuzentarau honi lotutako eginbide eta betebeharrak osoki edo zati batean betetzeko;
- k) «zerbitzuan jartzea»: Zuzentarau honek estalitako makina baten lehen erabilera Erkidegoan; erabilera aurreikusitako hura izango da;
- l) «arau bateratua»: zehazpen teknikoa, derrigorrezkoa ez dena, normalizazio-erakunde batek, hain zuzen ere Europako Normalizazio Batzordeak (CEN), Europako Normalizazio Elektroteknikoko Batzordeak (Cenelec) edo Europako Telekomunikazio Arauen Institutuak (ETSI) hartua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentaruak, 1998ko ekainaren 22koak, informazioaren gizartearen zerbitzuei buruzko arau eta erregelamendu teknikoen inguruan informazio-prozedura bat xedatzen duenak¹⁾, ezarritako prozeduren arabera Erkidegoak egindako agindu baten esparruan.

3. artikulua

Berariazko Zuzentaruak

Makina baterako, I. eranskinean adierazitako arriskuak Erkidegoko beste zuzentarau batzuek modu berariazkoagoan osoki edo zati batean estalita daudenean, Zuzentarau hau ez da aplikatuko edo makina horri ez zaio aplikatuko aipatu arriskuei dagokienez, zuzentarau horiek indarrean sartzen diren unetik.

¹ EO L 204, 1998.7.21ekoa, 37. or. Azken aldiz 2003ko Atxikitze Aktak aldatutako Zuzentaruak.

4. artikulua

Merkatuaren zaintza

1. Estatu kideek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte makinak merkaturatu edota zerbitzuan jarri ahal izan daitezen bakarrik Zuzentarau honen xedapen guztiak betetzen badituzte eta pertsonen segurtasuna eta osasuna edo, halakorik balitz, etxebereena zein ondasunena, arriskuan jartzen ez badute, behar bezala instalatu eta mantenduak badaude eta aurreikusitako erabileraren arabera edo baldintza aurreikusgarrietan erabiltzen badira.

2. Estatu kideek behar diren neurri guztiak hartuko dituzte kusi-makinak merkaturatu ahal izan daitezen bakarrik Zuzentarau honen xedapenak betetzen badituzte.

3. Estatu kideek, makinak eta kuasi-makinak 1 eta 2. paragrafoetan xedatutakoarekin bat datozela kontrolatzeko agintari eskudunak ezarri edo izendatuko dituzte.

4. Estatu kideek 3. paragrafoan jasotako agintari eskudunen misioak, antolaketa eta eskuduntzak zehaztuko dituzte, eta Batzordeari zein gainerako estatu kideei jakinaraziko dizkiete, eta baita ondorengo aldaketak ere.

5 artikulua

Merkaturatzea eta zerbitzuan jartzea

1. Fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak, makina bat merkaturatu edo zerbitzuan jarri aurretik, honakoak bete beharko ditu:

- a) makinak I. eranskinean jasotzen diren segurtasun eta osasuneko funtsezko betekizunak konplizten dituela ziurtatzea;
- b) VII. eranskineko A zatiak hizpide duen espediente teknikoa eskuragarri dagoela ziurtatzea;
- c) bereziki, beharrezkoak diren informazioak eskaintzea, argibideak kasu;
- d) onespenebaluaketako prozedurak burutzea, 12. artikuluari jarraiki;
- e) CE onspen-adierazpena idaztea, II. eranskinaren 1. zatiko A atalari jarraiki, eta aipatu deklarazioa makinari gaineratzea ziurtatzea;
- f) CE marka jartzea, 16. artikuluari jarraiki.

2. Fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak ziurtatu beharko du, kuasi-makina bat merkaturatu aurretik, 13. artikuluan adierazitako prozedura bete dela.

3. Hamabigarren artikuluan adierazitako prozeduren ondorioetarako, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak beharrezko neurriak ezarri beharko ditu, edo haiek eskuragarri eduki, ziurtatzeko makina I. eranskinean ageri diren osasun eta segurtasuneko funtsezko betekizunak konplizten dituela.

4. Makinak beste alderdi batzuei buruzko Erkidegoko beste zuzentarau batzuen mende daudenean eta zuzentarau horiek CE marka jarri beharra ezartzen dutenean, markaketa horrek seinatutako du makinek aipatu zuzentarueta xedatutakoa ere betetzen dutela.

Hala ere, zuzentarau horietako batek edo batzuek fabrikatzaileari edo haren ordezkari baimendunari aldi baterako aplikatuko duen sistema hautatzeko baimena emanez gero, CE markak bakarrik adieraziko du fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak aplikatutako zuzentarueta xedapenak betetzen dituela. CE onspen-adierazpenean, aplikatutako zuzentarueta erreferentziak barne hartu beharko dira, *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu ziren bezalaxe.

6. artikulua

Zirkulazio librea

1. Estatu kideek ezingo dute beren lurraldean Zuzentarau honetan xedatutakoa betetzen duten makineta merkaturatzea edo zerbitzuan jartzea debekatu, mugatu edo oztopatu.

2. Estatu kideek ezingo dute kuasi-makina baten merkaturatzea edo zerbitzuan jartzea debekatu, mugatu edo oztopatu, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak adierazten duenean, II. eranskinaren 1. zatiko B atalean aipatutako hasiera-deklarazioaren bidez, kuasi-makina makina bati eransteko edo, beste kuasi-makina batzuei batuta, makina bat sortzeko egina dagoela.

3. Estatu kideek ez dituzte trabak jarriko azoka, erakusketa, erakustaldi eta antzeko ekitaldietan Zuzentarau hau betetzen ez duten makinak edo kuasi-makinak aurkez daitezen, betiere ongi ikusteko moduko kartel bat badago adieraziz hori horrela dela eta ezingo direla makina horiek eskuragarri egon harik eta baldintzak betetzen dituzten arte. Gainera, baldintzekin bat ez datozten makina edo kuasi-makina horien erakustaldietan, pertsoneta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartu beharko dira.

7. artikulua

Betetze-presuntzioa eta arau bateratuak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Estatu kideek ulertuko dute CE marka duten eta CE onespen-adierazpena –zeinaren edukia II. eranskinaren 1. zatiko A atalean ageri baita–daramaten makinek Zuzentarau honetan xedatutakoa betetzen dutela.

2. Ulertuko da arau bateratu bati jarraiki fabrikatutako makina batek aipatu arau bateratuak –zeinaren erreferentzia *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratua egon behar baita–estaltzen dituen segurtasun eta osasuneko oinarritzko baldintzak betetzen dituela.

3. Batzordeak *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratuko ditu arau bateratuen erreferentziak.

4. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte estatu-mailako gizarte-eragileek arau bateratuak landu eta haien jarraipena egiteko prozesuan eragina eduki ahal izan dezaten.

8. artikulua

Neurri partikularrak

1. Batzordeak, 22. artikularen 3. paragrafoan adierazitako prozedurari jarraiki, egokitzen jotzen den edozein neurri hartu ahal izango du jarraian datozen puntuei buruzko arauak aplikatzeko aldera:

- a) V. eranskinean ageri den segurtasun-osagaien zerrenda orientagarria, 2. artikularen c) letran aipatua, eguneratzea;
- b) 9. artikulua hizpide dituen makinen merkaturatzea mugatzea.

2. Batzordeak, 22. artikularen 2. paragrafoan adierazitako prozedurari jarraiki, edozein neurri egoki hartu ahal izango du Zuzentarau hau aplikatu eta abian jartze aldera, estatu kideak elkarrekin eta Batzordearekin elkarlanean ariko direla bermatzeko beharrezko diren neurriak barne, 19. artikularen 1. paragrafoan xedatzen den moduan.

9. artikulua

Arriskugarri gerta daitezkeen makinatarako neurri partikularrak

1. Hamargarren artikuluan adierazitako prozedurarekin bat etorritik, Batzordeak ulertzen duenean arau bateratu batek ez dituela aipatu arauak hizpide dituen osasun eta segurtasuneko oinarritzko betekizunak berme osoz estaltzen, Batzordeak, artikuluan honen 3. paragrafoari jarraiki, neurriak hartu ahal izango ditu estatu kideei galdatzeko debeka edo murrizteko dezentela arauaren akatsengatik arriskugarri gerta daitezkeen ezaugarri teknikoak dituzten makinen merkaturatzea, edo aipatu makinen gainean baldintza bereziak ezar ditzatela.

11. artikuluan adierazitako prozedurarekin bat etorritik, Batzordeak ulertzen duenean estatu kide batek hartutako neurri bat arrazoizkoa dela, Batzordeak, artikuluan honen 3. paragrafoari jarraiki, neurriak hartu ahal izango ditu estatu kideei galdatzeko debeka edo murrizteko dezentela beren ezaugarri teknikoak direla-eta arrisku berak dituzten makinen merkaturatzea, edo aipatu makinen gainean baldintza bereziak ezar ditzatela.

2. Edozein estatu kidek Batzordeari eskatu ahal izango dio 1. paragrafoak jasotzen dituen neurriak hartzeko premia azter dezala.

3. Lehenengo paragrafoan aipatutako kasuetan, Batzordeak estatu kideekin eta interesa duten gainerako alderdiekin hitz egingo du, eta erkidego-mailan pertsonen osasun eta segurtasunaren babes-maila altua bermatzeko aldera hartu nahi dituen neurriak adieraziko ditu. Kontsultaren emaitzak kontuan harturik, Batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu, 22. artikularen 3. paragrafoan adierazitako prozedurari jarraiki.

10. artikulua

Arau bateratu baten aurka egiteko prozedura

Estatu kide baten edo Batzordearen iritziz, arau bateratu batek osasunaren eta segurtasunaren gaineko funtsezko betekizunak –I. eranskinean jasoak– behar bezain egoki betetzen ez dituenean, 98/34/EE Zuzentarauari jarraiki sortutako Komitea joko dute, beren arrazoiak aurkeztuz. Komiteak irizpena emango du luze gabe. Komitearen irizpena kontuan hartuz, Batzordeak erabakiko du arau bateratuen erreferentzia *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzea, ez argitaratzea, mantentzea, murrizketek mantentzea edo kentzea.

11. artikulua

Babes-klausula

1. Estatu kide batek egiaztatzen duenean Zuzentarau honek estaltzen duen makina batek –CE markaketa duena, CE onespen-adierazpenaz, eta aurreikusitako erabilera ematen zaiona edo aurreikusgarriak izan daitezkeen baldintzetan erabiltzen dena–, pertsonen eta, halakorik bada, etxeko animalien edo makinen segurtasuna zein osasuna arriskuan jar dezakeela, beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu makina merkaturatzeko, hura merkaturatzea edota martxan jartzea debekatzeko edo haren zirkulazio librea mugatzeko.

2. Estatu kideak neurri hori berehala jakinaraziko die Batzordeari eta gainerako estatu kideei, eta erabaki hori hartzeko arrazoiak adieraziko ditu, batik bat onespena ez emateko zergatia hauetakoren bat bada:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) 5. artikulua 1. paragrafoa a) idatz-zatiak aipatzen dituen funtsezko betekizunak ez betetzea;
- b) 7. artikulua 2. paragrafoak aipatzen dituen arau bateratuak oker aplikatzea;
- c) 7. artikulua 2. paragrafoak aipatzen dituen arau bateratuetan beretan akats bat egotea.

3. Batzordeak, dagokien alderdiekin hitz egingo du berehala.

Kontsulta horren ondoren, Batzordeak aztertuko du estatu kideak hartu dituen neurriak justifikaturik dauden ala ez, eta bere erabakia jakinaraziko die ekimena burutu duen estatu kideari, gainerako estatu kideei eta fabrikatzaileari edo haren ordezkari baimendunari.

4. Lehenengo paragrafoak aipatzen dituen neurriak arau bateratuen akats batean oinarritzen direnean eta neurriak hartu zituen estatu kideak bere jarrerari eusten dionean, Batzordeak edo estatu kideak 10. artikuluan adierazitako prozedura abiatuko du.

5. Onetsi gabeko makina batek CE marka daramanean, eskumeneko estatu kideak egokitzat jotzen diren neurriak hartuko ditu marka jarri duenaren aurka, eta Batzordeari horren berri emango dio. Era berean, Batzordeak horren berri emango die gainerako estatu kideei.

6. Batzordeak bermatuko du estatu kideek prozeduraren garapenaren eta emaitzen berri izango dutela.

12. artikulua

Makinek arauak betetzen dituztela ebaluatzeko prozedurak

1. Makina batek Zuzentarau honen xedapenak betetzen dituela egiaztatzeko, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak, 2., 3. eta 4. paragrafoetan arauen konplimendua ebaluatzeko azaltzen diren prozeduretako bat baliatuko du.

2. Makina IV. eranskinean jasotako arteen ez badago, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak VIII. eranskinean aurreikusitako prozedura baliatuko du, alegia arauen konplimenduaren ebaluaketa makinaren fabrikazioaren barne-kontrola medio.

3. Makina IV. eranskinean jasotako arteen badago eta 7. artikulua 2. paragrafoak aipatzen dituen arau bateratuei jarraiki fabrikatua izan bada, betiere arau horiek dagozkion osasun eta segurtasuneko funtsezko betekizunak konplitzen badituzte, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak prozedura hauetako bat baliatuko du:

a) VIII. eranskinean azaldutako prozedura, alegia arauen konplimenduaren ebaluaketa makinaren fabrikazioaren barne-kontrola medio;

b) IX. eranskinean azaldutako CE modelo-azterketaren prozedura, eta VIII. eranskinean 3. puntuan azaldutako prozedura, alegia arauen konplimenduaren ebaluaketa makinaren fabrikazioaren barne-kontrola medio;

c) erabateko kalitatea bermatzeko prozedura, X. eranskinean azaldua.

4. Makina IV. eranskinean jasotako arteen badago eta 7. artikulua 2. paragrafoak aipatzen dituen arau bateratuei jarraiki fabrikatua izan ez bada, edo arau horiek dagozkion osasun eta segurtasuneko funtsezko betekizun guztiak konplitzen ez badituzte, edo dagokion makinarentzat arau bateraturik ez badago, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak prozedura hauetako bat baliatuko du:

a) IX. eranskinean azaldutako CE modelo-azterketaren prozedura, eta VIII. eranskinean 3. puntuan azaldutako prozedura, alegia arauen konplimenduaren ebaluaketa makinaren fabrikazioaren barne-kontrola medio;

b) erabateko kalitatea bermatzeko prozedura, X. eranskinean azaldua.

13. artikulua

Kuasi-makinetarako prozedura

1. Kuasi-makina baten fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak, hura merkaturatu aurretik, honakoak prestatu beharko ditu:

a) VII. eranskinean B zatian aipatutako dokumentazio teknikoa;

b) VI. eranskinean adierazitako muntaketarako argibideak;

c) II. eranskinean 1. zatiko B atalean adierazitako merkaturatze-adierazpena.

2. Muntatzeko argibideak eta merkaturatze-adierazpena kuasi-makinarekin batera paratuko dira harik eta azken makinarekin batera jartzen diren arte; horrela, aipatu makinaren espediente teknikoaren zati bilakatuko dira.

14. artikulua

Jakinarazitako erakundeak

1. Estatu kideek Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko diete zein erakunde hautatu dituzten konplimenduaren ebaluaketa egiteko, 12. artikulua 3. eta 4. paragrafoetan aipatu merkaturatzeari begira, eta, horrez gain, konplimenduaren ebaluaketarako berriazko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

prozedurak, aipatu erakundeak zein makina-kategorietarako hautatuak izan diren eta, azkenik, Batzordeak erakundeetara aurrez esleitu dizkien identifikazio-zenbakiak. Estatu kideek Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko diete gerora egindako aldaketa oro.

2. Estatu kideek bermatuko dute jakinarazitako erakundeak aldizka ikuskatuak izango direla, XI. eranskinean ageri diren irizpideak beti jarraitzen dituztela egiaztatze aldera. Hala eskatzen zaionean, jakinarazitako erakundeak behar den informazio guztia eskaini beharko du, aurrekontuaren dokumentazioa barne, estatu kidea ziur egon dadin XI. eranskinean jasotako betekizunak konplitzen direla.

3. Estatu kideek XI. eranskinean ageri diren irizpideak baliatuko dituzte jakinarazitako dituzten erakundeak eta jada jakinarazitakoak ebaluatzeko.

4. Informazioa eskaintze aldera, jakinarazitako erakundeen zerrenda argitaratuko du Batzordeak *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean*, erakunde horien identifikazio-zenbakiaz eta bakoitzari esleitu zaizkion zereginez. Batzordea zerrenda hori eguneratua edukitzeaz arduratuko da.

5. Arau bateratuetan ezarritako ebaluaketa-irizpideak betetzen dituzten erakundeek, irizpide horiek bete izanaren presuntzioa izango dute; aipatu erakundeen erreferentziak *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko dira.

6. Jakinarazitako erakunde batek egiaztatzen badu fabrikatzaile batek ez dituela Zuzentarau honetako betekizunak konplitzen edo horiek konplitzeari utzi diola, edo ez zukeela CE modelo-azterketako ziurtagiri bat eman behar izan zein kalitatea bermatzeko sistema bat onartu, erakunde horrek, proportzionaltasun-printzipioa kontuan hartuz, emandako ziurtagiria edo onarpena eten edo kenduko du, edo mugak ezarriko ditu, bere erabakia xeheki arrazoituz, betiere fabrikatzaileak, dagozkion neurri zuzentzaileen bitartez, aipatu betekizunak konplituko dituela ziurtatzen ez badu. Ziurtagiria edo onarpena eten edo kendu nahiz mugak ezarri gero, edo beharrezkoa bada agintari eskudunak esku har dezan, jakinarazitako erakundeak horren berri eman beharko dio aipatu agintari eskudunari. Estatu kideak horren berri emango die, berehala, gainerako estatu kideei eta Batzordeari. Errekurtsoa aurkezteko prozeduraren bat ezarri beharko da.

7. Zuzentarau hau modu bateratuan aplikatua izan dadin, Batzordeak esperientzien truke bat antolatuko du Estatu kide bakoitzean jakinarazitako erakundeen izendapen, jakinarazpen eta ikuskapenaz arduratzen diren agintarien eta jakinarazitako erakundeen beraien artean.

8. Estatu kide batek jakinarazpena berehala kendu beharko dio erakunde bati, egiaztatzen badu:

a) erakunde horrek ez dituela jada XI. eranskinean jasotako irizpideak betetzen, edo

b) erakundeak ez dituela, larriki gainera, bere ardurak betetzen.

Estatu kideak horren berri emango die, berehala, gainerako estatu kideei eta Batzordeari.

15. artikulua

Makinen instalazioa eta erabilpena

Zuzentarau honek xedatutakoa gorabehera, estatu kideek ahalmena izango dute, Erkidegoko Zuzenbidea errespetatuz, pertsonak eta, bereziki, langileak makinak erabiltzen dituztenean beren babesa bermatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten betekizunak ezartzeko, betiere makinetan aldakuntzak eragiten ez badira Zuzentarau honetan adierazi gabeko modu batean.

16. artikulua

CE marka

1. CE onespen-marka «CE» inizialez osatua egongo da, III. eranskinean aurkeztutako ereduaren arabera.

2. CE marka modu ezabaezin, irakurgarri eta agerikoan jarri beharko da makinan, III. eranskinean aurkeztutako ereduaren arabera.

3. Debekaturik dago makinetan CE markarekiko, haren logotipoarekiko edota aldi berean biekiko nahasgarri gerta daitezkeen marka, zeinu eta inskripzioak ezartzea. Makinetan bestelako edozein marka ezarri ahal izango da, betiere CE markaren ikusgarritasunaren irakurgarritasunaren edo esanahiaren kaltetan ez bada.

17. artikulua

Markaketa ez onargarria

1. Estatu kideek markaketa ez onargarritzat joko dute:

a) CE marka Zuzentarau honen arabera ezartzea beronen esparrukoak ez diren produktuetan;

b) Makina batek CE marka edota CE onespen-adierazpena ez edukitzea;

c) Makina batean, 16. artikuluko 3. paragrafoaren arabera debekaturik dagoen CE markaketa bestelako marka bat jartzea.

2. Estatu kide batek egiaztatzen duenean markaketa batek ez dituela Zuzentarau honen xedapenak betetzen, fabrikatzaileak edo haren ordezkari baimendunak produktua arauetara egokitu beharko du eta arau-urratzea zuzendu, aipatu estatu kideak ezarritako baldintzetan.

3. Artean markaketa onargarria ez bada, Estatu kideak produktuaren merkaturatzea mugatu edo debekatzeko zein produktua merkatutik kentzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu, 11. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraiki.

18. artikulua

Konfidentzialtasuna

1. Estatu bakoitzean konfidentzialtasunari dagokionez dauden xedapenak eta jarduerak bazter utzi gabe, Estatu kideen ardura izango da Zuzendarau honen aplikazioak ukitutako alderdi eta pertsona guztiei galdatzea beren egitekoa gauzatzekoan eskuratu duten informazioa isilpekotzat har dezaten. Zehazkiago, isilpekotzat hartuko dira enpresa- eta merkataritza-sekretuak nahiz sekretu profesionalak, salbu eta horien hedapena ezinbestekotzat jotzen bada pertsonen osasuna eta segurtasuna babesteko.

2. Lehenengo paragrafoko xedapenek ez dute eraginik izango Estatu kideek eta jakinarazitako erakundeek informazioa trukatzeari eta alertak hedatzeari buruz dituzten obligazioetan.

3. Estatu kideek eta Batzordeak 9. eta 11. artikuluari jarraiki hartzen duten edozein erabakiren berri publikoa eman beharko da.

19. artikulua

Estatu kideen arteko lankidetzak

1. Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte 4. artikuluan 3. paragrafoan aipatu agintari eskudunak elkarlanean jardun daitezkeen eta Zuzendarau hau era bateratuan aplikatu ahal izateko beharrezkoa den informazioa elkarri truka diezaioten.

2. Zuzendarau honen aplikazio bateratua koordinatzeko, Batzordeak esperientzien truke bat antolatuko du merkatua zaintzeaz arduratutako agintari eskudunen artean.

20. artikulua

Errekurtsoak

Zuzendarau hau aplikatuz hartzen den edozein erabaki, aipatu erabakiak Zuzendarau honen eraginpean dagoen makina baten merkaturatzea edota martxan jartzea mugatzea badakar, zehatz-mehatz arrazoitu beharko da. Erabakia lehenbailehen jakinaraziko zaio interesdunari, dagokion Estatu kidean indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen errekurtsoen eta horiek aurkezteko epeen berri emanez.

21. artikulua

Informazioa hedatzea

Batzordeak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu Zuzendarau honen aplikazioari dagokionez informazio egokia eskuragarri egon dadin.

22. artikulua

Komitea

1. Batzordeak komite bat izango du laguntzaile, aurrerantzean «Komitea» deitua.

2. Paragrafo hau hizpide den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 3. eta 7. artikulua izango dira aplikagarri, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.

Hirugarren paragrafo hau hizpide den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5. eta 7. artikulua izango dira aplikagarri, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez. Erabaki horren 5. artikuluan 6. paragrafoan ezarritako epea hiru hilekoa da.

4. Komiteak onartuko du bere barne-araudia.

23. artikulua

Zehapenak

Estatu kideek erabakiko dute Zuzendarau hau aplikatuz hartutako estatu-mailako xedapenen urraketei ezarri beharreko zehapen-erregimena, eta haren aplikazioa bermatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte. Aurreikusitako zehapenak eraginkorrak, neurrikoak eta atzera-eragileak izan beharko dira. Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote xedapen horiek 2008ko ekainaren 29a baino lehen, eta baita gerora egindako horien edozein aldaketa ere, lehenbailehen.

24. artikulua

95/16/EE Zuzendaraua aldatzea

95/16/EE Zuzendarauan aldaketa hauek izan dira:

1) Lehenengo artikuluan, 2. eta 3. paragrafoen ordeztu hau paratuko da:

«2. Zuzendarau honen ondorioetarako, "igogailua" izango da zehaztutako maila jakin batzuk zerbitzatzen dituen jasotze-aparatu oro, gidari zurrun batzuetatik lerratzen den egonleku bat duena eta horizontalarekiko 15 gradu baino gehiagoko malda, honakoak garraiatzera bideratua:

— pertsonak,

— pertsonak eta objektuak,

— objektuak, baldin eta egonlekua irisgarria bada, hau da, pertsona bat barrura aise sar badaiteke, eta eragingailuak baditu

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egonlekuaren barruan edo bertan sartuta dagoen pertsona baten eskueran.

Ibilbide finko bati jarraituz lerratzen diren jasotze-aparatuak –gidari zurrinak izan gabe ere– Zuzentarau honen aplikazio-esparruaren baitako igogailutzat hartuko dira.

“Egonleku” deituko zaio igoak edo jaitsiak izateko pertsonak edo objektuak paratzen diren igogailuaren zatiari.

3. Zuzentarau ez da aplikagarri izango honakoetan:

- 0,15 m/s baino abiadura handiagoko jasotze-aparatuak,
- eraikuntza-obretako igogailuak,
- kable-instalazioak, funikularra barne,
- bereziki xede militar edo polizialetarako diseinatu eta fabrikatutako igogailuak,
- jasotze-aparatuak oro har, horietatik lanak egin daitezkeenean,
- mea-zuloetarako igogailuak,
- Emankizunetan zehar antzezleak batetik bestera mugitzeko jasotze-aparatuak,
- garraiobideetan ezarritako jasotze-aparatuak,
- makina bati lotuta dauden eta lan-postuetara iritsi ahal izateko bakarrik baliatzen diren jasotze-aparatuak, makinaren mantentze-lanetako eta ikuskapeneko puntuak barne,
- kremailera-trenak,
- eskailera eta korridore mekanikoak.».

2) I. eranskinean, 1.2 puntuaren ordezkari testu hau paratuko da:

«1.2. Egonlekua

Igogailu bakoitzaren egonlekua kabina bat izango da. Kabina diseinatu eta fabrikatzeko orduan, aintzat hartu behar da haren espazioa eta erresistentzia instalatzaileak ezarritako gehieneko pertsonakopuruari zein igogailuaren karga izendatuari egokitu beharke zaizkiela.

Igogailua pertsonak garraiatzeko bada eta haren tamainak ahalbidetzen duenean, kabina diseinatu eta fabrikatzeko orduan aintzat hartuko da bere egiturazko ezaugarriak ez dutela pertsona ezinduek bertara sar daitezkeen edo erabili ahal dezaten zaildu edo eragotziko, eta posible izango dela pertsona horiek erabili ditzaten egin beharreko edozein egokitzapen egitea.

25. artikulua

Indargabetzea

98/37/EE Zuzentaraua indargabeturik dago.

Ulertuko da indargabetutako Zuzentarauari buruzko aipamenak Zuzentarau honi egindakoak direla, XII. eranskineko elkarrekikotasun-taulari jarraiki.

26. artikulua

Transposizioa

1. Estatu kideek, Zuzentarau hau betetzeko beharrezkoak diren xedapenak gauzatu eta argitaratuko dituzte, beranduenez 2008ko ekainaren 29an. Berehala, Batzordeari horren berri emango diote.

Xedapenok 2009ko abenduaren 29tik aurrera aplikatuko dira.

Estatu kideek xedapenak gauzatzeko dituztenean, xedapenetan Zuzentarau honi buruzko erreferentzia jasoko da, edo haien agerkari ofizialean erreferentzia hori agertuko da. Estatu kideek, aipatu erreferentziaren modalitateak finkatuko dituzte.

2. Estatu kideek, Zuzentarau honek araututako esparruan gauzatzeko dituzten barne-zuzenbideko xedapenen testua aurkeztuko diote Batzordeari, eta baita xedapen horien eta zuzentarau honen arteko elkarrekikotasun-taula ere.

27. artikulua

Iragaitza-aldia

2011ko ekainaren 29ra arte, Estatu kideek baimendu ahal izango dute gai leherkorrez abiarazten diren finkapeneko makina eramangarriak eta talkazko beste makina eramangarri batzuk merkaturatu eta martxan jartzea, betiere Zuzentarau hau aplikatzeko unean indarrean dagoen estatu-mailako araudiarekin bat badatoz.

28. artikulua

Indarrean sartzea

Zuzentarau hau, *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogeitun egunera sartuko da indarrean.

29. artikulua

Hartzaileak

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgo egina, 2006ko maiatzaren 17an.

Europako Parlamentuaren izenean *Kontseiluaren izenean*
Presidentea *Presidentea*
J. BORRELL FONTELLES H. WINKLER